

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 267. zenbakia. 2018ko maiatza



**Lizen ametsa egi**



**IRAZABAL**  
clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

**Familiaren Osasuna**  
**Zure familiaren ahoaren osasunaz**  
**arduratzten garelako**  
**Gutuz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**en: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

**IES UNIBHI**

**HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA**

**EKAINAREN 4etik 15era**

**HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK**

- HEZIKETA FISIKOA
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRAZIOA



**PROIEKTUAK**

- Praktikak Atzerrian (ERAMUS+)
- Lanbide-Heziketa Duala (HEZIBI)
- Ikaskuntzak Eszenatokiak
- Osasunarentzako Programa
- Enpresa Birtuala
- UNI Encounter
- UrratsBat
- Hizkuntzaren Normalkuntza
- Nazioarteko Ikasle-trukea
- Ikasle Lan Poltsa



[www.uni.eus](http://www.uni.eus)  
[idazkaritza@uni.eus](mailto:idazkaritza@uni.eus)  
TEL: 943 20 84 44 / 943 17 62 57

**f** [www.facebook.com/iesunibhi](https://www.facebook.com/iesunibhi)  
**t** @UniEibarErmua

**ATE IREKIAK: Maiatzaren 26an, 11.00etatik 13:00etara**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa Elkarte  
Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Elizabeth Campos.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Elvira Ormaechea.,  
Felix Morquecho,  
Storbais,  
Elizabeth Campos,  
Jesús Cimarro,  
Mara Gandiaga,  
Valentin Mugarza,  
Dani Balncó (Argia),  
Ermua BHI,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Piedi  
Eizagirre eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Tararai kuku (Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Tararai kuku tararai kuku  
kantatzen dau arbola gañian,  
tararai kuku tararai kuku  
aprilla eta maiatzian.

Erromako zubitxik

Andra Mari egunian,

kukua pasau ei zan

kantatzeko ustian.

Baita baimena eskatu

San Pedron aurrian,

baña ezetz esan eutsan

bertan kantau artian.

Tararai kuku tararai kuku

honek ez dau nahi lanik egitea,

tararai kuku tararai kuku

nahiago du arbolan kantatzia.

Kukuak egin eta amillotx batek jan,

haixe bere kukuan zoritxarra bazan.

Kukua bera ere alper haundi bat zan

txantxangorri gixajuari umia erain otzan.

Tararai kuku tararai kuku

nik ez dot nahi eskolara juatia,

tararai kuku tararai kuku

ez dot nahi ezer ikastia.

Ikaste ez daben umiak

kuku eiten dira,

kukua ez izateko eskolara bira.

Hamen amaitzen dira

kukuan kondairak

ta danok kantatu dagigun

kukuari begira



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4

Elvira Ormaechea (Higganum, AEB)

ELKARRIZKETA .....5-7

Jokin Azpiazu Carballo, soziologoa

MALLABIAN ZER? .....8-9

Gipuzkoako zaborrak Mallabian?

ERREPORTAJEA .....10-11

Modaren distira ez da irudipena

ERMUAN ZER? .....14-15

Storbais taldeak 25 urte

ERMUAN ZER? .....16-17

Ermutik mundura Whatsapp bitartez

MOTZEAN .....18

Jesús Cimarro Santixauetako txupineroa

KIROLZALE .....19

Mara Gandiaga Athletic Clubeko jokalaria

ANTZINAKOAK .....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK .....21

Saldu, erosi edo agurtu

EKAINEN AGENDA ...22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## Elvira Estibaliz Ormaechea

Enrique (Endika) Ormaetxeak jaioterra utzi eta Amerikako Estatu Batuetara (AEB) jo zuen 1976an. Connecticuten kokatu zen New Britain hirian, New Yorketik ordu bira, eta Puerto Ricoko jatorria duen Nancy Centenorekin maitemindu zen. Euren alaba da Elvira eta gure artean daukagu egun hauetan amarekin familia bisitatzeko. Bere laugarren aldia da Ermuan eta gogoko du bere sustraiak ezagutzea, oso harro baitago zendutako aitak emandako euskal izaz.

**-Nolakoa izan zen zure aitarekin historia? Ermua utzi eta AEBra joan zen...**

Ez zen erraza izan nire aitak AEBra izan zuen helduera. Modu ilegalean iritsi zen eta hainbat urte pasa zituen dena zuzentzeko. Egoera konpondu eta gero, AEBn egoteko erresidencezia iraunkorra lortu zuen, baina euskal edo espainiar hiritartasunari uko egin gabe.

**-Non bizi zara AEBn? Nolakoa da zure herria?**

Connecticut estatuan dagoen Higganum izeneko herri txiki batean bizi naiz. Estatuko hego-erdialdean dago, Connecticut ibaiaren alboan. Baso inguruan bizi naiz Judd nire senarrarekin. Arte estudioa daukat bertan, artista naizela. Egia esan, kafea eta artea dira nire bizitza! Begira, artista naiz, baina Ashlawn Farm Coffee izeneko kafe-konpainia batentzat ere egiten dut

lan. Kafetegiaren arduraduna naiz eta kafe dastatzeak egiten ditut. Bertan txigortzen ditugu kafe-aleak! Ondo nahasten dira artea eta kafea. Astegunetan kafeari eskaintzen diot denbora, eta margotu egiten dut iluntzean eta asteburuetan.

**-Euskal komunitatea dago han?**

Euskal komunitate txikia dago Connecticuten, baina banatuta bizi gara. Alboan dagoen Rhode Island estatuko Euskal Etxera joaten gara eta hainbat jaialdi eta ekintzatan hartzen dugu parte. Batzuetan euskal jakiak eta pintxoak egiten ditugu familian: bakailaoa, txistorra, babak, dilistak, antxoak... Taloa egiten saiatu nintzen behin, baina ez zen gauza bera izan! (barreak) Euskal jatorria duen AEBko jendea aurkitu dit sare sozialetan eta gure istorio eta testuinguruak partekatu ditugu.



**-Euskal ohiturak mantentzen dituzue?**

Tamalez, ez dugu inoiz benetan euskara ikasi. Nire aita zen gure komunitatean euskaraz zekien pertsona bakarra, eta nire amarekin eta bestekin berba egiteko modurik errazena gaztelera zenez, ez zigun euskara irakatsi. Beti esan ohi zuen pena hori zeukala. Hala ere, gu saiatu gara eta gure jatorria errespetatzen dugu. Beti ahalegintzen gara gure izena zuzen esaten besteek ondo ulertzeko nola esaten den. Gure aita espainiarra dela esaten dutenean beti zuzentzen dugu eta euskalduna dela zehazten dugu,

berarentzat hori oso garrantzitsua zelako.

**-Nolakoa da zure harremana Ermuarekin?**

Oraingoa laugarren aldia dut Ermuan. Orain dela ia lau urte egon nintzen nire lehen-gusuen ezkontzan. Familia daukat hemen oraindik eta Ermuarekin oso harreman ona daukadala uste dut. Oso eroso eta pozik sentitzen naiz beti hemen. Badakit ez naizela bere osotasunean egokitzen, bizitza ezberdina bizi dudalako AEBn, baina hementxo jendearekin antzeko ezau-garriak ditudala ikustea gustatzen zait.

Ekhi Belar

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



Jokin Azpiazu Carballo, soziologoa eta aktibista:

**“Gizonon helburua gizon bezala desagertzea izan beharko litzateke”**

Bere aktibismotik eta unibertsitate esparruan egindako ikerketatik abiatuta argitaratu zuen iaz ‘Masculinidades y feminismo’ liburua Jokin Azpiazu Carballok. Soziologian lizentziatua eta Generoko eta Feminismoko Ikerketen masterduna, EHU-n egiten du lan ermuarrak. Urteetako aktibismoan eta ikerketa lanetan sortutako gogoetak batu zituen liburuan eta, ondorioz, eztabaida eta galdera gehiago sortu dira gai horren inguruan. Hedapen handia izan du liburuak eta gogoetarako erantzunak utzi dizkigu elkarrizketa honetan.

- *Ikerketa eta gogoeten emaitza da 'Masculinidades y feminismo', baina nondik abiatu zen liburua?*

Liburua Bartzelonako Virus argitaletxeak (<http://viruseditorial.net>) egin zidan proposamenetik abiatzen da. Bertan dauden ideiak (nire aktibismotik eta unibertsitate esparruan egindako ikerketatik zetozenak) apur bat ordenatu eta liburu formatuan kaleratzea proposatu zidaten. Horretarako berriz ere hainbat lagun eta aktibistekin eztabaida berreskuratu nuen eta horren emaitza da liburua.

- *Nori zuzendua dago?*

Liburua feminismoaren inguruan pentsatzen ari den jendeari zuzenduta dago. Uste dut badirela pertsona asko gai honi bueltaka ari direnak, eta askok uste dugu "zerbait egin beharra" dagoela, baina maiz ez gauden ziur zer den egin beharrekoa, ez gara ados jartzen edo gaia larregi sinplifikatzen dugu. Horri buruzkoa da liburua, eta bereziki gustatuko litzaidake gizon bezala heziak izan direnek irakurtzea, baina gaian interesa duen edonork irakur dezake.

- *Horrelako liburu bat idazteko orduan, aurretik*

*dago pentsatuta nola gauzatuko den edo idatzi ahal garatuz doa?*

Liburuaren atal batzuk nire unibertsitate-ikerketan dute oinarri eta zentzu horretan, idazkera akademiko formaletik urruntzea izan da erronka. Beste batzuk zerotik sortu dira. Hala ere, hasieratik adostu genuen argitaletxearekin jorratu nahi genituen gaiak eta eskema hori izan da abiapuntua.

- *Liburuak oihartzuna izan du, eta eztabaida eta gogoetarako bidea ireki du. Pozik zaude liburuak izan duen onarpenarekin?*

Sorpresa handia izan da, liburua nik uste nuena baino dezenteago zabaldu delako, bai paperean eta baita PDF-an ere. Horretaz gain aberatsak izan dira oso aurkezpen eta tailerretan liburua inguruan izandako solasaldiak, eta horrek asko pozten nau.

- *Maskulinitatea da liburuaren ardatza. Gure irakurleak kokatzeko: zer ulertu behar dugu maskulinitate moduan?*

Gauza asko ulertu daitezke maskulinitateaz. Liburuaren maskulinitatea ez da horrenbeste pertsona baten nortasun ezaugarri bat. Baizik eta gaur egungo gizartean kokatzen den

## "Gure gizarteetan ez dugu oso ondo hartzen eskema indibidualetik harago doan ezer"

botere-posizio bat, gizonezkoontzako era ezberdineta-ko pribilegioak (ekonomikoak, sinbolikoak, politikoak, korporalak...) mantentzera bideratzen dena.

- *Maskulinitatearen kontzientzia izatea beharrezkoa da maskulinitatea bera eraldatu, moldatu eta deuseztatzeko (deuseztatu ahal bada, behintzat)? Gizarteak, oro har, badauka kontzientzia hori?*

Gure gizarteetan oro har ez dugu oso ondo hartzen eskema indibidualetik harago doan ezer. Bakoitza norbera dela eta gure kabuz erabaki eta egiten dugun fantasia sinistu dugu. Ez gara kontziente gure botere posizioez, ez genero ikuspegitik, ez eta arraza edo klase ikuspegitik ere. Gizonezkoon kasuan, gainera, gure botere posizioaz kontziente izateak leku deseroso batera garamatza, oro har erosoago gaudelako gure burua biktima bezala identifikatuz eta ez pribilegiatu gisa.

- *Zentzu horretan, maskulinitatearen kontzientzia eduki, horren inguruko gogoeta egin, eraldatu... gizonezkoek landu behar duten zerbait da edo gizarte osoak hartu behar luke parte prozesu horretan?*

Gizonezkoek ezin diogu ardura horri bizkarra eman. Badira hamarkadak mugimendu feministak eztabaida eta aldarrikapen ugari plazaratu dituela eta horiek denak guri eragiten digute. Ezinbestekoa da beraz, berarek serio hartzea eta lanari ekitea. Horrek ez du esan nahi lan hori gure kabuz egin behar dugunik. Hain zuzen ere emakumeen ahotsa entzutea da hemen garrantzitsua: gauza ez da gu nola aldatzen garen, baizik eta horrek nola eragiten dien besteei.

- *Maila kolektiboan edo pertsonalean egin beharreko prozesua da? Edo bietan?*

Eraldaketa pertsonalak (jarrerak, usteak, sentitzeko moduak...) ez dira baliagarriak botere harremanetan eragiten ez badute, ez eta eraldaketa handiak proposatzea, haiek ez bagaituzte barrutik eraldatzen.

- *Maskulinitatearekin akabatu behar da desparekotasunarekin akabatzeko?*

Egungo gizartea ar eta emeetan banatzea eta berarek genero-identitateak ezartzea (maskulinitatea eta feminitatea) ez da prozesu neutro bat. Hain zuzen ere mailaketa bat sortzeko sortu eta azpimarratzen da ezberdintasun hori. Munduan badira begi marroiak eta berdeak dauzkaten pertsonak, baina ezberdinta-



## “Gizonezkook erosoago gaude gure burua biktima bezala identifikatuz eta ez pribilegiatu bezala”

sun hori ez dugu erabiltzen haien arteko hierarkia sortzeko. Generoarena, aldiz, bai. Zer da orduan maskulinitatea? Hierarkia baten barruan soilik funtzionatzen duen kategoria da. Gizonok ispilu horretan begiratu behar dugu gure buruan aldaketa eragiteko (gure pribilegioak berrikusi, ardurak hartu...), baina horrek ez du esan nahi kategoria horri eutsi behar diogunik betirako. Gizonon helburua gizon bezala desagertzea izan beharko litzateke, epe luzera bederen.

**- Nolako rola hartu edo eduki behar dute gizonezkoek berdintasuna lortzeko bidean?**

Ulertu beharko genuke kontu honek inplikatzeko gaitzela. Esaterako, San Ferminetako bortxaketa arbuizaketa eta gure haserrea erakustea nahiko erraza da une honetan, baina pentsatzea gure jardun pertsonal

zein kolektiboan indarkeria sexualak duen papera? Zer egiten dugu guk horrekin? Jorera handia dugu pentsatzeko jarrera matxistak dituztenak “beste batzuk” direla, eskuak garbitzeko irrikan gaude eta horrek ez du nire ustez oinarri egokia jartzen eraldaketa sakonerrako.

**- Zein toki izan beharko lukete gizonezkoek feminismoan?**

Askotan esaten dut feminismoa ez dela gurea baina bai guretzat. Feminismoaren aldarrikapen eta planteamendu ezberdinek zuzenean interperlatzen gaituzte, baina horrek ez du esan nahi mugimendu horren protagonistak garenik, are gutxiago ere. Adibide berarekin jarraituz esango nuke gizonoi ez dagokigula indarkeria sexualaren aurkako mobilizazioetan lehen lerroan egotea (egun hauetan hainbat argazkitan ikusi den bezala), baizik eta belarriak irekitzea eta ireki den eztabaida ho-

rrek denak guri nola eragiten digun pentsatzea, dena dena dugulako oraindik berrikusteko.

**- Gizon taldeen inguruan jardun duzu hainbat elkarrizketatan, baina zer dira gizon taldeak?**

Gizon taldeak sexismoaren inguruan zerbait egiteko biltzen diren gizonen kolektiboak dira. Askotan eztabaida espazioak dira, edo kanpainak proposatzen dituzte edo ekimenetan parte hartu... Oso ezberdinak eta anitzak dira haien artean. Nik dakidala Ermuan talde aktibo eta interesgarria dago, Zipristintzen. Garrantzitsua da talde horien ekarpena, hain zuzen ere gizonoi ardura hartzen laguntzen duelako. Dena dela ez da formula bakarra, askotan talde edo prozesu mistoetan lantzen dira kontu horiek. Kasu denetan (gizon taldeetan eta talde mistoetan) ekarpen interesgarriak eta ez hain interesgarriak daude, abantailak eta mugak, estrategia ezberdinak. Formula zehatz bat bilatu baino, egiten denak duen eraginarri adi egon eta etengabe kritikoak izatea da gakoa, nire ustez.

**- Urtebete pasa da liburua argitaratu zenuenetik,**




**baina eztabaida ez da gelditu. Gogoetak, ideiak... etengabe sortzen dira. Liburu honen ildotik beste libururen bat idaztea aurreikusten duzu?**

Epe laburrean ez. Liburu honetan biltzen direnak urte batzuetako hausnarketak dira, mugimendu feministako eta LGTB+ mugimenduko hainbat kiderekin onduak, eta denbora eskatu du ideioi lantzeak. Beraz, hemendik aurrera ere astiro hartzea espero dut, eta ideiei beren bidea egiten uztea.

Ekhi Velar

**DROGETEN** ITTURRI  
**Publizitatea:**  
 943 179350  
 688 632876  
 drogeten@gmail.com

Komunitateak  
**San Pelayo**  
 Aholkularitza  
 juridikoa  
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Hamburguesería  
**TITANIC**  
  
 Pintxo dastaketa  
 poteoan  
 Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELJETAN  
**BIZKAIKO**  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEMU 3-943170563  
 ERMOUA



**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 [www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

# Gipuzkoako zaborrak Mallabian toki bila

Mila gorabeheren ostean Gipuzkoako zaborrak desagerrarazteko erraustegia eraikitzen hasi ziren orain dela urtebete Zubietan. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK) sozietate foralak lehiaketa publikoa jarri zuen martxan erraustegia prest eduki arte (2019ra arte) probintzia horretako zaborrak jasotzeko eta Mallabiko Betearte zabortegia bakarrik aurkeztu zen. Mallabitarrek, aldiz, neurri horren aurka jarri dira eta GHK-k oraindik ez du ezer erabaki.



**M**aiatzaren 19an hartu behar zuten GHK-k urtero sortzen diren 60.000 tona hondakinekin zer egin jakiteko erabakia: Mallabiko Betearte zabortegira ekartzea, bertako enpresak egindako proposamena onartuz; edo, Bizkaiko Foru Aldundiak es-

katu bezala, Zabalgarbiko erraustegira eramatea. Bada, azkenean erabakia luzatzea erabaki zuen GHK-k eta mallabitarrek zain egon beharko dute oraindik. Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako proposamena sakonago aztertu behar duela arrazoitu du GHK-k eta, atzera bueltarik gabe au-

rrera egin beharrean, Betearte enpresaren proposamena zain utzi du. "Dauden eskaintzak aztertzen jarraituko dugu, irtenbiderik onena aurkitu arte", adierazi zuen José Ignacio Asensio Gipuzkoako Ingurumen diputatuak prentsa ohar baten bitartez.

Betearte enpresaren pro-

posamen ekonomikoaren berri eman behar zen maiatzaren 19ko saioan, baina aurrera ez egiteko erabakiak Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenari aukerak ematen dizkio. Egun bat lehenago iritsi ziren Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenaren baldintza ekonomikoak, beraz, gaia tratatzen duen komisioak denbora behar du erabakia hartu aurretik. Hala ere, Diario Vasco egunkariak azaltzen duenez, astebeteko epea jarri da gauzak argitzeko edo, gutxienez, negoziaketak hasteko. Hortaz, berehala jakingo da erabakia.

## 60.000 tona hondakin urtean

Mallabiko Betearte zabortegia urtean 60.000 tona hondakin jasotzeko prest egotea nahi zuen GHK-k, baina zabortegia Bizkaian dagoenez Bizkaiko



## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Zure  
publizitatea:

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

**DROGETEN**  
DROGETEN  
DROGETEN

ITTURRI  
ITTURRI  
ITTURRI

aldizkarian



Foru Aldundiak adierazi zuen ezin direla aurrez tratatu gabeko hondakinak bota zabortegira. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak beste proposamena jarri du mahai gainean, Zabalgarbikoa. Hondakinak Zabalgarbin erraustu eta errautsak Artigasko zabortegira eramatea proposatu du Aldundiak. Bestela, herrialdekanpoko tratamendu mekaniko biologikorako (TMB) planta batean tratatzea eta gero zabortegira eramatea ere iradoki dute Bizkaiko agintariek.

Arlo ekonomikoak berebiziko garrantzia dauka arazo honetan eta dirukontuek izango dute pisu handiena erabakia hartzeko orduan. Bizkaiko Aldundiak proposatzen dituen aukerak Beteartek eskaintzen duena baino garestiagoak dira. GHK 100.000 tona ari da Mutiloan botatzen, eta tonako 60 euroko kostua dauka han. Mallabian prezio bera izango luke, baina hondakinak Zabalgarbira eramanez gero GHK-k Bizkaiko beste herriek ordaintzen dutena ordaindu beharko luke, hau da, 80 euro tonako.

### Mallabiko Udala kontra

Gipuzkoako hondakinak Mallabira ekartzekak kezka handia sorrarazi zion Igor Agirre Mallabiko alkateari eta Betearte enpresaren asmoak jakin bezain laster, Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri zen. Udal Gobernuan dauden alderdi biek, EAJ eta EH Bilduk, ukatu egin dute Gipuzkoako hondakinak Mallabira ekartzeko aukera eta horrela jakinarazi diete EAE eta Bizkaiko agintariei.

Mallabiko Udalak bi arrazoi nagusi aurkeztu zituen hondakinak Beteartera eramateko aukerari uko egiteko. Batetik, Beteartek arriskutsuak ez diren hondakinak industrialak bakarrik jaso ditzakela. Horrela zehazten du udaleko araudiko memoria batek eta bestelako hondakinak bota ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren baimena behar du. Eta bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiko araudiak dio hondakinak denak tratatu egin behar direla inora bota aurretik. Bizkaian zaborra aurretik tratatzen duten gune bi daude, baina Gipuzkoan bat ere ez.

### ARETO-FUTBOLEKO JUBENILAK BIZKAIKO TXAPELDUN

Mallabiko areto-futboleko jubenilen taldea Bizkaiko txapeldun bilakatu da Bilbo, Santurtzi, Castro Urdiales eta Zierbena talde handiak atzean utzita. Garaipen honen ostean Mallabitarrek Euskadiko Kopa jokatu dute maiatzaren 27an Araba eta Gipuzkoako txapeldunen aurka.

### FRONTENIS TXAPELKETA

Mallabiko frontoiak frontenis txapelketa jasoko du ekainaren 9an, larunbata, Mallabia FT-ren eskutik. Bikoteka lehiatuko da eta zabalik dago izena emateko epea. Bikote bakoitzak 16 euro ordaindu beharko ditu (bazkideek erdia ordaindu beharko dute) eta 24 bikote arituko dira gehienez. Txapelketaren irabazleek kopa eta 200 euro eskuratuko dituzte eta bigarrenek, kopa eta 150 euro. Informazio gehiago behar izanez gero, 669 02 87 18 telefonora deitu daiteke.

### MALLABIKO FUTBITO TXAPELKETA

Mallabia FT-k areto-futbol txapelketa antolatu du ekainaren 15etik 17ra. Euskararen aldeko maratona egingo da eta talde gutxiak bi partidu jokatu dituzte gutxienez. Sarietako dagokienez, lehen sailkatuek garaikurra eta 600 euro jasoko dituzte, bigarrenek garaikurra eta 400 euro, eta hirugarrenek garaikurra eta 250 euro. Gainera, etxeko talde onenak 150 euroko saria eskuratuko du. Horretarako, gutxienez Mallabian jaiotako edo bertan bizi diren hiru jokalarik izan behar ditu taldeak. 70 euro ordaindu beharko dira izena emateko eta talde bakoitzak 10 jokalarik izango ditu gehienez. Ekainaren 12ra arte egongo da zabalik izen ematea eta informazio gehiago eskuratzeko 669 02 87 18 telefonora deitu daiteke.

### TENIS TXAPELKETA

Kirol lehiaketekin jarraituz, Mallabia FT-k tenis txapelketa antolatu du ekainaren 1etik uztailaren 8ra. 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago lehiaketa eta parte-hartzaileek bi partidu jokatu dituzte gutxienez. Maiatzaren 28an amaituko da izena emateko epea eta 12 euro ordaindu beharko dira (bazkideek 6 euro). Beste txapelketetan bezala, eta informazio gehiago eskuratzeko, 669 02 87 18 telefonora deitu daiteke.



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Toldoak</li> <li>- Ostalaritzarako muntaiak</li> <li>- Pertsianak</li> <li>- Instalakuntzak eta konponketak</li> <li>- Motorizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Manparak</li> <li>- Segurtasun pertsianak</li> <li>- Pertsiana dekoratiboak</li> <li>- Estreak</li> <li>- Eltxo-sareak</li> </ul>
---	--

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com





**SEHIGA**  
PROTECCION LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak



Denda  
berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

---

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

# Modaren distira ez da irudipena

Elizabeth Camposek (Liz Henschell) txikitatik nahi izan du modaren munduan aritu. “Orduak pasatzen nituen modako aldizkariak begiratzen, arropa ezberdinak probatzen eta nire amari argazkiak ateratzeko esaten”, onartu digu munduaren beste aldetik. Izan ere, egun hauetan kasualitatez Ermuan badugu ere, Tailandian igaro ditu azken hilabeteak modelo ermuarrak. Bere jaioterria biziki maite du, baina bere ametsa bizitzen ari da munduan zehar. Hurrengo geltokia? Ibiza.

**N**orberak txikitatik duen ametsa betetzea oso zaila izaten da. Etengabe bidaltzen dizkigute gure ametsen bila joateko mezuak eta gehienek huts egiten dute. Bada, ametsa bete duen pertsonetako bat da Liz eta zuku gehiena ateratzen dio bere egoerari. Urteak daramatza modaren munduan, behetik hasi eta arlo askotan aritu izan da, eta mundu osoan zehar gehien gustatzen zaiona egiten ari da orain.

Moda kontuak betidanik gustatu izan bazaizkio ere, kasualitatez sartu zen modaren munduan. “20 urte nituenean agentzia batean argazkiak egitera zihoan lagun bati lagundu nion eta argazkilariak ikusi ninduean argazki batzuk ateratzeko proposamena egin zidan”. Lizek onartu egin zuen, poliki-poliki mundu horretan murgildu zen eta Donostiako First Models agentziarekin lanean hasi zen. Gero, FHMko

lehiaketa iritsi zen. “Espainiako 100 neska sexyenak bilatzen zituzten eta 100 horien artean aukeratu ninduten”. Mugarria izan zen Lizen ibilbidean, izan ere, modelo lan gehiago eskaini zizkieten hortik aurrera.

Espanian eman zituen lehen pausoak modaren munduan. Madrilan,artzelona, Galizian, Asturiasen eta Euskal Herrian hainbat lan egin zituen bitzita aldatu zion deia jaso arte. “Milango Cavalli markako managerrak Facebook bitartez idatzi zidan euren jatetxeko irudi bezala lan egiteko proposamenarekin”, azaldu digu Lizek. Cavalliren eskaintza onartu eta nazioarteko lanak irten zitzaizkion ordutik. “Londres, Tokio, Marrakech, Casablanca, Ibiza, Miami, Mykonos, Jordania, Lugano, Austriako Alpeak... hainbat tokitan egin izan dut lana”.

## Mundua zehar

Bidaiatzea gustatzen



zaion pertsona izanik, aukera ederra zen atzerrian lan egitea, baina hasieran ez zegoen bere aurreikuspenetan. “Mendaroko ospitalean egiten nuen lan erizain moduan eta asko gustatzen zitzaidan lana. Aurretik lan biak uztartzen nituen, baina Milanera joateko aukera sortu zitzaidanean nire ametsa bete nezakeela ikusi nuen eta

ezin nuen aukera hori pasatzen utzi”, aitortu digu.

Izan Londresen, Tailandian, Ibizan edo Miamin, zoriontsu da egiten duenarekin. Modelo lanak egiten ditu, baina ez hori bakarrik. Freelance bezala dabil modaren munduan eta bere agenteak irudi eta publizitate lanak bilatzen dizkio. “Argazki-saioak, bideoklipak, katalogoak,





aldizkarietarako erreportajeak eta publizitate kanpainak egiten ditut, besteak beste”, adierazi digu Tailandiatik.

Bainujantzien marka bantentzat publizitate kanpaina egin berri du Thailandian, baina ez hori bakarrik, iluzion diskotekako irudia ere bada. “Tailandiako diskoteka onena eta Asiako hirugarren garrantzitsuen da”.

Beraz, argazkilari eta markentzako egiten dituen argazki-saioekin uztartzen du diskotekarekin duen irudi lana.

Zorionsua da munduaren alde batetik bestera. Bidaiatzeko duen “pasioak” mugiarazten duela onartzen du. Munduko txoko ezberdinak ezagutzea, beste kulturak deskubritzea eta etengabe gauza berriak

ikastea gustatzen zaio, eta bere lanak gauza horiek guztiek egiteko aukera ematen dio. Oso “abergarria” dela dio. Jende berria ezagutu duela dio: “Beste egoera batean inoiz ezagutuko ez nuen jendea”. Gainera, herrialde bakoitza ondo ezagutzeko denbora izaten duela aipatu du. Gainera, Ermura etortzeko malgutasuna dauka eta asko eskertzen duen gauza da hori, maite duen jende asko bizi baita bere jaioterrian. “Hori da lan honen alde txarrena, familia eta lagunengandik hain urrun egotea”.

#### Ametsa bizitzen

Orain dela pare bat astera arte Thailandian egon da, baina utzi du Asiako abentura eta Ermuan dago aspaldi ikusi gabe zituen familia eta lagunekin denbora gozoa pasatzen. Bide batez, gainera, atsedena hartzen du ibizara joan aurretik. “Dena bide onetik badao lbizan egongo naiz udan eta gero Miamira bueltatuko naiz ziurrenik”.

Etorkizunean hara eta hona ibiliko dela daki Lizetek, baina gero, modaren mundua lagatzean, nork daki: “Ez dakit erizain mo-



duan arituko naizen gero, maite dudan lanbidea delako, baina momentuz modelo lanari zukua atera nahi diot”. Bidea egin du orain arte eta momentu gorena bizi du gaur egun. “Bide luzea daukat aurretik oraindik eta baita hainbat helburu ere”.

Argi dauka zorionekoa dela, gehien maite duen horretan aritzea zoragarria dela. Beraz, norberaren ametsak jarraitzeko animatzen du jendea, nahiz eta lorrezinak irudituko. “Noizbait niri ere esan zidaten nire ametsak lorrezinak zirela”. Orain ezin diote gauza bera esan.

Ekhi Velar

**“Dena bide honetik badao lbizan egongo naiz udan eta gero Miamira bueltatuko naiz”**

Bitsi-denda Tailer propicia Edoju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

**PUB YOMY**

**Zubiaurre kalearen bihotzean**

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Ferreteria

**ANBOTO**

Burdindegi

Orain KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

# ZATOZ KANTURA!!

Maiatzaren 27an  
13:00etan plazara!!

**ERMUAN  
KANTUAN**



Euskal  
Birusa  
Elkartea



**ermuan  
bagara**



Kaixo irakurleok!

Iraletik **azken berriak** iragarri nahi dizkizuet! Gudan daukazuen **konfiantza eskertu** nahi dizuet lehenik eta behin. Momentu honetan horrenbeste aho, hagin eta paziente behar diren bezala, tratatzeko taldea handitu egin da!

### **Gurera dentista berri bat etorri da.**

Jatorra, Athletic zalea eta lanean goxotasunarekin diharduena. **Eneritz** da bera. Esperientzia handia dauka eta gure klinikan daukagun lana arintzera dator. Askotan nirekin elkarlanean ikusiko duzue. Izan ere, nire bizkar arazoak direla eta berak nik egiten nituen lanak egingo ditu. Ea pixkanaka zuzentzen joaten naizen!



Hona hemen gure bi Eneritz irribartsuak

**Gogoratu uda datorrela!** Nahiz eta momentuz eguraldiak berdina ez esaten duen, lerdin eta dotore ipiniko gara eguzkiari irri egiteko. Sandaliak eta eguzkitako betaurrekoez gain, **ez ahaztu urteroko haginaren errebisioa pasatzea eta, bide batez, zuriketa egitea.** Bizipoza emango dio zure irribarreari. Bizitza hobeto iragaten da irribarretsul! Haginetan sentsibilitatea izanez gero, pasta bereziak daukagu beroari aurre egiteko eta gero izozki gozoak jan ahal izateko prest egoteko.

Eta hori da dena! Esan bezala, **goza ezazue uda honetan eta irribarre egin !**

Leire Irazu  
Irale Hertz Klinikako zuzendaria



Storbais taldearen 25. urteurrena:

# “Baldintza ezberdinetara egokitzen eta bizirauten jakin dugu”

Modan dauden musika estiloak etengabe aldatzen doaz eta talde asko sortu, desagertu, berritu, bateratu edota desegiten dira. Storbais salbuespena da. Ermuko musika taldeak 25 urte bete ditu aurten eta bere estiloari jarraituz iritsi da mende laurdenera. Hasierako martxa biziko urteei aktibitate gutxiagokoek jarraitu diete, baina Storbais bizirik dago eta herriko erreferentziazko talde bilakatu da. Urteurrena ospatzeko kontzertu berezia eskainiko dute ekainaren 9an plazan.

- 25 urte bete dituzue. Zer datorkizue burura denboran atzera begiratzeko baduzue?

Hiltzeko zorian zaude-nean gertatzen den moduan, soinu eta irudiz betetako fotogramak etortzen zaizkizu burura: lehen kontzertuak, kartelak, lagundu gaituzten pertsonak, grabazioak, teknikoak, fanzineak, marrazkiak, diseinuak, logotipoak, bidaiak, anekdotak, pertsonaiak, juergak, taldeko kideak... eta lagunak, batez ere ez daudenak.

- Nolako izan da bidea?

Bizitza bera bezalako. Hasieran, ilusioak eta gaztetetasunak denak bakar

bakarrik aurrera egitea ahalbidetzen du. Taldean aisialdirako denbora genuen ikasleak eta langabetuak egonda, edozertara heltzeko gauza gainen. Urteak aurrera joan ahala, gauzak aldatu egiten dira eta, era berean, lehentasunak. Lana, familia, gure arteko kilometroak, heldua egiteak... denak eragiten du eta zailagoa izaten da aurrera egitea.

- Hala ere, taldea mantendu duzue 25 urtetan. Zein da sekretua?

Baldintza ezberdinetara egokitzen jakitea eta bizirautea. Denborarekin gaztetetasuna ere badoa eta motorra aldatu egiten da.



Irakurtasuna, amore ez ematea, ausardia... ilusioaz gain. Bandaren erritmoa moteldu egin da,

baina aurrera egiten dugu muletekin eta barraskiloaren abiaduran bada ere.

**BERRITZE LANAK**  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
**ZUK ERABAKI**

**SPARA**  
rehabilitación + sostenibilidad

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

**DG Horacio Decoración**  
TAPIZERIA - ALIZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

**esanline**<sup>®</sup>

+ @ + TV + Smartphone

846 080 010  
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua  
esanline.es



**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak  
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527



- **Nolako eboluzioa izan du taldeak urte hauetan? Estiloa, soinua... asko aldatu da?**

Trash hardcore punk azkarretik metal soinura pasa gara esango genuke barrutik ikusita. Denborerdiak erritmo handiagoko doinuekin nahasten ditugu, eta orain soinu landuagoa daukagu trasherara joz. Kanpotik argiago ikusten dira gauza hauek, hainbatetan esan diguten ahots aldaketak bezala.

- **Urte hauetako zein momentu nabarmenduko zenukete?**

Egia esan, taldearen mugari garrantzitsuenak le-

hen hamar urteetan gertatu ziren. Hiru grabaketa, kontzertuak maiztasun handiz ematen genituen, konposizio jarria, Tipoko lehiaketa... sasoi hartako hainbat momentu itzel jasotzen dituen bideoa ere badaukagu! Gaur egun abesti berri bat egitea, kantu bat grabatzea, entsegu on bat egitea edo kontzertu bat eskaintzea itzela da guretzat!

- **Badago ahaztu nahiko zenukete zerbait?**

Ezinbestean, ez. Gauza guztietatik ikasi dezakezu zerbait eta gauzak hobeto egiteko balio dezake horrek. Etsairik ez dugula



uste dugu, ezta harreman txarrik ere beste musikaldeekin. Inguruan dituzun guztiei zuk egiten duzun musika gustatzen ez zaiela onartu behar duzu, eta alderantziz ere, eurek esku artean dituzten hainbat proiektu zuri ez zaizkizulako interesatzen.

- **Zein momentutan aurkitzen da taldea gaur egun?**

Sormenezkoa baino aktibitate fase batean aurkitzen gara. Maiztasun handiz entseatzen ari gara, noizean behin jotzera iriten gara eta lan berria grabatzeko materiala badaukagu. Bada ordua!

- **25. urteurrena ospatzeko zerbait berezia egingo duzue?**

Bai, ekainaren 9an kontzertua eskainiko dugu Ermuan. Ez da kontzertu soil izango, hainbat ekintza prestatu ditugulako herrian. Eszenografia ohikoa baino deigarriagoa izateko lanean gabiltza. Adibidez, kontzertua iragartzen duten kartelak ohikoak baino askoz ere handiagoak dira.

- **Beste 25 urte betetzeko prest?**

Zergatik ez? 25 urteren ostean jubilatuta egongo gara eta denbora eta energia gehiago eskaini ahal izango diogu taldeari. Zuek ere bizirik jarraitzen baduzue, Storbaisen 50. urteurrenari buruzko elkarrikketa egiña zagok! (barrreak).

Ekhi Velar



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5


ERMUA

# Ermutik mundura Whatsapp bitartez

Aurtengo neguan hainbatetan egin du elurra Ermuan. Herriko kaleak zuritu dira eta makina bat arazo sortu dira eguneroko jardunean, baita ikastetxeetan ere. Elurra egin zuen egunetako batean, elurra zela eta, eskolara ez joateko mezua hedatu zen Ermua BHIko ikasleen telefono mugikorretan. Gezurra zen, eskolak ez zuen inongo mezurik bidali. Sare sozialek eta komunikazio-bide berriekin sortu daitezkeen arazo eta ondorioei buruzko gogoetarako bidea ireki zen Ermua BHI eta, hortik abiatuta, proiektu bat jarri zuen martxan ikasle talde batek: **Whatsapp bitartez euskal diasporarekin kontaktuan jartzea.**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) irakasgaiko irakaslea da Alaitz Uscola Ermua BHI. Elurrarekin eta telefono mugikorretan hedatu zen mezuarekin gertatutakoa klasera eramatea okurritu zitzaion, eta komunikazio kanpaina bat egiteko proposamena egin zien ikasleei. Hiru baldintza bete

behar zituzten gazteen ekimenek: proiektuak webgune bat edukitzea, difusioa egitea eta sare sozialek zeri-kusia edukitzea. “Hasieran ez zitzaien ideiarik okurritu”, adierazi digu Uscolak, baina poliki-poliki joan ziren gauzak irteten. “Black Mirror telesailen oinarrituta, sare sozialekiko dugun dependentziaren inguruko




lana egin du talde batek; beste batzuk Euskal Herriko mendien inguruan egin dute lan; eta Elgetak Gerra Zibilean izan zuen lekukotasuna landu du beste talde batek”. Izan dira Ermua munduarekin lotuko zuen proiektua garatzea pentsatu zutenak ere: Ermutik euskal diasporara Whatsapp bitartez.

Munduan zehar sakabanututa dauden euskaldunekin harremanetan jartzeko mezua prestatu zuen lehenik Ermua BHIko ikasle taldeak. Euren burua aurkeztu eta

proiektuaren helburua zein zen azaltzen zuten ikasleek mezuan. Gero, Whatsapp-ak bere lana egin dezala. “Demaseko difusioa izan zuen mezuak”, adierazi digu Uscolak. “Ordu gutxitan Elko (AEB), Boise (AEB) eta beste hainbat tokitara iritsi zen mezua, eta erantzunak jaso genituen”. Denbora gutxian zortzi argazki jaso zituzten eta Ermua BHIko ikasleen egitasmoaren berri eman zen Euskal Herri osoan ere.

**Sentimendu handiko harremana**



**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13  
(Ermua)

**ENKARGYAK**  
943 030 299

ileapaindegia

**Silvia**  
peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474

688819336





Milaka kilometrora bizi badira ere, euskal sentimendu handia dago euskal diasporan. “Kutsu sentimental handia izan du proiektu honek. 2. eta 3. belaunaldiko euskaldunekin egin dugu kontakua euskal diasporan eta atsegin handiz hartu dute parte ekimenean”, dio Uscolak. Hasieran, hala ere, euskal diasporan mezua jaso zutenek ez zeukaten erantzuna nora bidali. “Batzuk erantzun nahi zuten, baina ez zekiten nora bidali euren mezua”. Beraz, euskal diasporarekin elkarlanean dabilen Eusko Jaurlaritzako sailak laguntza eskaini zuen eta mezua bideratu zituen.

Boise (AEB), Montreal (Kanada), Tailandia, Bristol

(Erresuma Batua), Elko (AEB, Necochea (Argentina), Sydney (Australia), San Francisco (AEB), Canuelas (Argentina), Caracas (Venezuela) eta Bartzelonatik (Espainia) erantzun diote Ermua BHikoek bidalitako mezuari eta <http://saresozialakermuabhi.blogspot.com.es> webgunean jaso dituzte. Euren mezuak izan duen harrerak eta hartzaileek erakutsi duten sentimenduak hunkitu egin ditu Ermuko ikasleak. “Ermuan, tamalez, gutxi entzuten ditugu ikasleak euskaraz egiten, eta munduaren beste puntan euskara hainbeste maite duen jendea topatzea adierazgarria izan da”, Uscolaren berbetan. “Munduan zehar ibili behar badira ere,

euskal identitatearekin ir-tenda euren tokia errazago topa dezaketela ikusi dute ikasleek. Nonahi daude euskal komunitateak eta horrela errazagoa da modu indibidualen aurrera egitea baino”.

**Proiektua ez da hemen amaitzen**

Dimensio handia hartu du Ermua BHiko ikasle taldearen proiektuak eta Kanpoan den Komunitatearen Teknikariaren laguntza jasotzeaz gain, ikastetxeko beste ikasle batzuek ere parte hartu dute ekimenean. Kanpoan den Komunitatearen Teknikariak diasporak nola funtzionatzen duten azaldu die ikasleei eta hainbat hitzaldi eskaini ditu horren inguruan. “Kontaktu asko eman dizkigu”, azaldu digu Uscolak.

Proiektu honek izan duen oihartzuna handia izan bada ere, ikasleek ezin diote denbora gehiegi eskaini une honetan. Izan ere, ikasturtea aurrera doa eta azterketa sasoiari buru-belarri daude. “Hala ere, harreman sendoa egin da euskal diasporarekin eta hurrengo urteotan bide

**Kaixoo!**

Ermua BHiko ikasle talde bat gara, eta hurrengo proiektua gauzatzeko zuten laguntza behar dugu.


Hona hemen gure erronka:

Whatsapp hau munduan zehar sakabanatuta dauden Euskal Etxe guztietara heltzea dugu helburu. Mezu hau noraino eta zenbat denboran hedatu daitekeen aztertu nahi dugu. Kontakturik eman gabe, taldez talde zabalduz nora arte hel gaitzake? Jasoko ote dugu erantzunik?

Sare honetako euskaldunoi mezu hau zabaltzeko eskatzen dizuegu batetik, eta bestetik Euskal Etxe ezberdinetatik erantzunik jasotzen baduzue, mezu horiek ere zabaldu Ermura heldu arte.

horretatik jarraitzea gustatuko litzaiguke”, adierazi du Uscolak. Eusko Jaurlaritzak antolatutako Kultura Ondare lehiaketan parte hartzeko aurkeztu dute egitasmoa eta aurten martxan jarritakoak jarraipena izango duela ematen du. “Ikasleek asko gozatu dute proiektu honenkin”, eta Ermua munduarekin lotu dute Whatsapp mezu apal baten bitartez.

Ekhi Velar



**EUSKAL BIRUSAREN ARGAZKIAN ATERATZEKO GONBIDAPENA**

Azken alditik hamar urte igaro ostean, Euskal Birusak Euskara Elkarteak talde-argazkia aterako du maiatzaren 26an, zapatua, 14:00etan plazan. Ermuan Bagara egitasmoaren barruan ekintza ugari egingo dira herrian eta, 1998an eta 2008an egin bezala, elkarteko bazkideak eta herriko euskaltzaleak batu nahi ditu Euskal Birusak talde-argazkia berritzeko. Beraz, elkarteak gonbidapena egiten dizue argazkian azaldu eta euskarari babesa eman nahi diozuen guzti-guztiori.

**GURE ESKU DAGO EKIMENAREN GIZA KATEA EKAINAREN 10EAN**

Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea pasako da Ermutik Gure Esku Dago egitasmoak antolatuta. Eguerdiko 12:00-12:30ak inguruan egingo da eta 100.000 pertsonak emango diote eskua batak besteari erabakitzeke eskubidea aldarrikatzeko, 'Eman eskua etorkizunari' izenbururarekin.

**ERMUAN BAGARA MAIATZAREN 25ETIK 27RA**

Euskarak herriko kaleak hartuko ditu maiatzaren 25etik 27ra Ermuan Bagara egitasmoarekin. Egitarau zabala prestatu du Ermuko Euskaltzaleen Taldeak eta azaroan egingo den Euskaraldiari begira berotzen joateko aukera aparta izango da.

**ermuan bagara**  
3 eginez euskaraz

**Maiatzak 25, ostirua**

- 10:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 11:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 12:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 13:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 14:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 15:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 16:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 17:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 18:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 19:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 20:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 21:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 22:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 23:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 24:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)

**Maiatzak 26, larunbata**

- 10:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 11:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 12:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 13:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 14:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 15:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 16:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 17:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 18:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 19:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 20:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 21:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 22:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 23:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 24:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)

**Maiatzak 27, igandea**

- 10:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 11:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 12:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 13:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 14:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 15:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 16:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 17:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 18:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 19:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 20:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 21:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 22:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 23:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)
- 24:00an, **Herriko Kaleak Hartuko Ditugu** (Herriko Kaleak Hartuko Ditugu, San Lorenzo, Euzkadi, San Felice eta Antzokian)

**Jesus Cimarrok emango die hasiera Santixauei**

Jesus Cimarro antzerki-ekoizle ermuarrak emango die hasiera aurtengo Santixauei. Espainiako Arte Eszenikoen Akademiako presidentea, Madrilgo Ekoizle eta Antzerkien Elkarteko presidentea eta Espainiako Antzerki eta Dantza Ekoizleen Elkarteko presidentea da Cimarro gaur egun, eta Forbes Business aldizkariak munduko 100 pertsona sortzaileen artean sartu du berriki. Cimarrok, horrela, herrikideen berotasuna eta esker ona jasoko du Santixauetan.



**'Herriazaindu' gure ingurua zatartzen dituzten jokaerak salatzeke**

Debabarreneko Esperientzia Eskolako 14. promozioaren ikasturtea amaitzear dago. Eskola honek, 55 urtetik gorako pertsonen formazioa eskaini eta parte-hartzea lantzeko aukera ematen die. Aurtengo taldeak Ermuko bi partaide izan ditu. Eurek kontatu digutenez, ikasturtean zehar herriari onuraren bat ekarriko zion ekimen bat asmatu eta martxan jarri dute esku hartzea lantzeko asmoz. Gure ingurua zatartzen dituzten jokaerak salatu nahi dituzte 'Herriazaindu' izenburuarekin: txakurren kakak, kontenedoreetan sartu gabeko zaborra, kalean txiza egitea edo pintada eta firmak. Jokaera bakoitza salatzeke pegatina bat diseinatu dute eta maiatzaren azkeneko astean gure kaleetan ikusi ahal izango ditugu. Ekainaren 1ean berriz, Eibarko Untzaga Plazan egongo dira hurbiltzen denari 'Fundamentua' oparitzeko asmoz.



**Euskadiko II. Hezkuntza Robotika Txapelketa Ermuan**

Debabarreneko herriek Gazte Robotika egitasmoa jasoko dute aurten ere eta Ermuak berebiziko garrantzia izango du, bertan emango zaiolako amaiera egitasmoari Euskadiko II. Hezkuntza Robotika Txapelketarekin. Irailaren 22an jokatu da Izarra zentroan, doakoa izango da eta Euskadi osoko gazteei dago zuzendua. Gazte Robotikaren barruan, bestetik, robotika eta bideo-jokoen sorkuntza tailerrak eskainiko ditu Debegeesak sei udalerritan, Ermua eta Mallabia barne. 20 orduko tailerrak izango dira, eta euskaraz. Abuztuaren 27tik 31ra eta irailaren 3tik 6ra Ermuan burutuko dira, eta irailaren 3tik 7ra Mallabian.

# Mara Gandiaga Aja, Ermuko lehoia

Mara Gandiagak 14 urte ditu eta Athletic Club futbol taldeko jokalaria da. Anaia Jon eta ama Araitzekin bizi da Ermuan, eta erlazio ona dutela esan digu. Lagunekin ere pozik dago. Betiko lagunak ditu kuadrilakoak eta mutilekin egotea gustatzen zaio. "Futbolearen aritzen garelako nahiz eta koadrilan neska batzuk egon".

- **Nolako ibilbidea izan duzu futbolearen??**

3. mailan Anaitasuna Ikas-talako taldearekin hasi nintzen Jokin Uriarte entrenatzaile zela. Talde horretan 5. mailara arte egon nintzen eta tarte horretan Aitor Landa hasi zen entrenatzaile bezala. Ikusita Ermuan ez zegoela emakumeen talderik, Eibarko emakumeen futbol eskolan hasi nintzen 6. mailan. Hainbat entrenatzaile zeuden: Ainhoa Larruskain, Maitane Basterra, Irune Jimenez eta Andrea Cedeño. DBH-ko 1. mailan Urki taldean hasi nintzen eta urte horretan Athletic-eko teknifikazio taldean hasi nintzen, baina ez nuen



denboraldi guztiaz gozatu meniskoa apurtu nuelako. Aurten Athletic-ek sortutako emakumeen lehenengo talde infantilean nago.

- **Entrenatzaileen inguruan zer esango zenuke?**

Egia esateko eduki ditudan entrenatzaile guztiekin harreman eta giro ona izan dut, baina bat esatekotan Ainhoa Larruskain "Larrus" aipatuko nuke.

- **Familia zein lagunengandik laguntasuna eta berotasuna nabaria izan da?**

Lagunen partetik laguntza handia jaso izan dut, baina gehien lagundu eta animatzen didan pertsona nire ama da, partida guztietara eramaten nauen pertsona delako, nahiz eta ez duen futbola gustuko! (barreak)

- **Euskadiko selekzioarekin ibilia zara. Esperientzia nolakoa izan da?**

Euskadiko selekzioarekin sub-12 txapelketa estatalen parte hartu nuen



Almerian. Lehenengo aldian etxetik kanpo egunak pasatzen nituela futbol talde batekin eta oso esperientzia polita eta erakargarria izan zen. Lagun oso onak egin nituen eta horietatik asko nire gaur egungo taldean aritzen dira. Txapelketa irabazi ez bagenuen ere, oso txapelketa ona egin genuen 3. postua lortuta Extremaduraren aurka galdu eta gero.

- **Errepikatzeko modukoa?**

Bai, gainera aurten Castellonen egon naiz gure taldearekin eta hemen bai irabazle atera gara. Kasu honetan finala talde euskaldun baten aurka jokatu genuen, Osasuna. Oso final bizia eta gogorra izan zen eta 3-2 irabazi genuen.

- **Athletic-en entrenamenduak gogorrak dira?**

Entrenamenduak gogorragoak dira eta maila fisiko handiagoa eskatzen dute, baina aurten Athletic-en ikasten ari naizena oso ona izango da, etorkizunean lehenengo mailara igotzea nahi badut. Astean hiru egunetan entrenatzen dut, baina gogorren egiten zaidana da autobusean hainbeste ordu egotea.

- **Zure bizitzako momentu onen bat gogoan duzu?**

Momentu on asko ditut, baina bat aipatzekotan, Castelloko esperientziarekin geratzen naiz. Maila handiko taldeak garaitu genituen gure lan eta ahaleginarekin, eta irabazle bueltatu ginen Euskal Herrira.

Amaia Arginzoniz

arral97.com  
**arral**  
 Telf.: 943 17 60 75  
**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo  
 48260 Ermua Bizkaia  
 94 317 66 90  
 peluqueriaizaskun@gmail.com  
 peluqueriaizaskun.wordpress.com

**URRETA** burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Savrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Errailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

**quetzal**  
 [arropa, bitxiak, opañak...]

Zubiaturre, 2 48260 ERMUA | 943170065  
 www.quetzalmoda.com

**MALLABIA  
1950**

Argazki hau 1950 ingurukoa da, bertan Solozabaltar familia ageri da: Maria Zelaieta moja ordenatu zeneko ospakizun bazkarikoa. Maria madrilen egon zan urte askotan, erizain lanak egiten.

Bertan agertzen dira: Eulogio Solozabal, Eugenio Solozabal, Carmen Ostolaza, Eustakio Solozabal, Fortunata Ibarluzea, Antonia Solozabal, Eusebio Arregi, (?), Libe Larrinaga, (?), Begoña Larrinaga, Josefa Zelaieta, Urbito Asua, Fabiana Solozabal, Maria Zelaieta, Milagros Zelaieta, Nieves Asua, Don Elias Lasuen, Pedro Zelaieta, (?).

**ERMUA  
1970**

Maiatzaren 30ean ezkondu zen Feli Garitagoitia Juan Luis Egiazu plaentxiarrarekin. Ezkontza osteko bazkaria Valerionian, Valerio Gandiagaren harategi-jatetxean egin zuten. Bertako alaba Rosario sukaldari ona izan eta fama handia zuten orduan sasoiari. Jatetxea gaur egun Jubiletxea den eraikinaren zati zen eta erretratua pare-parean aterata dago, Pispilluen arbolapean. Ezkonberria inguratzen, lagun eta senideak. Ezkerretik hasita eskumara: Inmaculada Solozabal, Guadalupe López, Berta Yarza, Feli bera, M<sup>a</sup> Laura de la Haya, M<sup>a</sup> Cristina Egia, Laurita Bilbao eta Aurora Lerín.

**Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Proba-Leku**

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**



Maiatzaren 24an  
Zorionak June zure 9. urtebetetzean! Jarraitu horren maitakor eta alai izaten. Muxu handi bat familiaren partez!



Ekainaren 20an  
Zorionak Leire! Ondo pasa eguna. Aurten urte berezia da! Muxu handi bat!



Maiatzaren 16an  
Zorionak laztana!!! Musu handi bat etxe-koen partez!



Ekainaren 9an  
Zorionak gure errege Yham Francorentzat, bedeinkapen asko izan ditzazula. Maite zaitugu, zure gurasoak, aiton-amonak eta izeko-izebak



Maiatzaren 4an  
Zorionak Nora! Mallabiko Ariño baserriko amama eta aitarien partez. Maitasunez musu handi bat!!



Ekainaren 5ean  
Zorionak Izaro!  
Ekainaren 5ean 10 urte betetzen dituzulako. Askok maite zaitugu. Muxu handi bat Eder. Aita eta amaren partez!



Maiatzaren 28an  
Zorionak Naroa eta oso ondo pasa zure 6. urtebetetzean!



Maiatzaren 26an eta ekainaren 1ean  
Zorionak Laia eta Udane!! 7 eta 4 urte! Ondo pasa eta muxu handi bat familia osoaren partez!



Maiatzaren 16an  
Zorionak gure etxeko mutil jatorrari! Etxekoak.



Ekainaren 6an  
Zorionak amatxo! Familia guztiaren partez. Ondo pasa!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: **Ekainaren 13a.**



Apirilak 12 eta maiatzak 7  
Kattalinek 8 eta Mikelek 10; gure etxeko larrosa txikixak neskato haundi eginda! Patxuak dan-danon partez!

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN**  
**SALMENTA ETA KONPONKETA**

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33

**optika**  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**MUSIKA**

**Hilak 2:**

Rock kontzertua: Pérez-Rock. 19etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera dohainik.

**Hilak 9:**

Storbais taldearen 25 urteurrenaren kontzertua. 23etan. Orbe kardenalaren plazan.



**Hilaren 18tik 21era:**

Kontzertuak: Alboka musika eskolako ikasleak. 19etan. Lobiano Kulturgunean eta Ermua Antzokian.

**Hilak 22:**

Kontzertua: Alboka musika eskolako ikasleak (Alboka eguna). 22etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik

**Hilak 30:**

Elektrojaia: musika elektronikoaren jaialdia. Betiondoko aparkalekuan

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 1, 8, 15 eta 22:**

Haurrentzako jolasak: Barixakuetan. 17:30ean. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilak 14:**

Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 28:**

Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

**ANTZERKIA**

**Hilak 16:**

"El tanguito de mamá", Ernesto Barrutiaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8 €



**ERAKUSKETA**

**Hilaren 16tik 29ra:**

Margo erakusketa. 18etatik 20etara. Lobiano Kulturgunean.

**DANTZA**

**Hilak 2:**

Txindurri eguna: dantza erakustaldia + erromeria + Larraindantza. 19:00etatik. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilak 3:**

Txindurri eguna: dantza erakustaldia + erromeria + Larraindantza. 19:00etatik. Orbe kardenalaren plazan.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 3:**

Gaztela-La Mantxako kultur astea: hainbat ekitaldi. Gaztela-La Mantxako Kultur zentruan eta Lobiano Kulturgunean.

**Hilak 7:**

Ermuko Ikastetxetako ikasleen bertso jaialdia. 18.00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

**Hilaren 11tik 16ra:**

Gastronomiari buruzko ihardunaldiak: hainbat ekitaldi.

**Hilak 17:**

Kale margo lehiaketa. 9etatik.

**Hilak 23:**

San Juan sua: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.



**Hilak 23:**

El Rozioko erromeria. Betiondoko aparkalekuan. 11etatik.

Patxi López

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**

**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)

**ALBOKA**

**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

# 17/18

CURSO

IKASTURTEA

Matrikula epea ZABALIK  
Plazo de matriculación ABIERTO

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK  
CURSOS DE VERANO DE EUSKERA

ONGI ETORRI  
*euskarara*

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**

euskara klaseak - clases de euskera

[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)



## ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

### IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

Irailaren 3tik 28ra

### AZTERKETA OFIZIALAK URRIAN

### MATRIKULA ZABALIK

EKAINAREN 29RA ARTE

MAILAK		
B1 (1. Maila)	B2 (2. Maila)	C1 (3. Maila)

Eskaintza eta ordutegi zabalak / Txandakako taldeak

Azterketa ofizialak maiatzean eta urrian

16 urtetik gorakoentzat

Bekak / Langabetuek eta lehen mailako ikasleek matrikularen  
prezio erdia

## BULEGO ORDUTEGIA

9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

### ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina. Goienkale, z/g 2. solairua

Tf.: 943 17 09 25

[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)

<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 ☎ 943 17 47 44

**irale**  
 Hortz Klinika  
 Clínica Dental  
 C/ Zeharkalea, 8  
 48260 Ermua, Bizkaia  
 Tel. 943 17 71 34

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13, behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**SAN PELAYO**  
 HORTZ KLINIKAZ + CLINICA DENTAL  
 Zuri egokitzen  
 den odontologia  
 La odontología  
 que se adapta a tí  
 Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1284  
 • P.A.D.I  
 • IMQ  
 • SANITAS  
 • DENTYRED  
 • AZKARAN  
 • OCASO  
 ☎ 943 17 04 04  
 ✉ info@clinicasanpelayo.com  
 📍 San Pelayo Zeharkalea 5  
 48260 Ermua (Bizkaia)

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
 - Aho eta inplante kirurgia  
 - Hortzetako protesiak  
 - Hortz estetika  
 - Ortodontzia  
 - Odontopediatria  
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea  
 Hertz klinika berritu eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**   
 Cristina García Pérez  
 Belar-denda eta dietetika  
 • Elikagai biologikoak  
 • Terapia naturalak  
 • Naturopatarekin kontsultak  
 • Masajeak  
 • Dietistarekin kontsultak  
 • Kosmetika biologikoa  
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera